

TESTIGANTZA

Etapa guztiz normala

BI MARRA ARROSA

Jasone Osoro
Txalaparta, 2009
120 orrialde. 15 euro

Iban BALERDI

Bi marra arrosekin hasten dena liburua-
ren hasieran, Duna bihurtzen da beron-
nen akaberan. Hauxe da Jasone Osorok
kontatzen duena liburu honetan, bere le-
hen alabaren haurdunaldia, alegia. Diru-
dienez, bederatzita hilabete inguru horie-
tan zehar egunkari bat idatzi zuen bere
aldaketa fisiko eta psikologikoen berri
emanez, bere burutazioak esplikatu, eta
horren ondorioa da gure eskuetaraino
heldu den testigantza. Horrena eta bizi-
tza berri baten sortzearena.

Egitura aldetik, hiruhilekotan zatitu
du elgoibartarrak honako lana. Bakoitza-
ren hasieran hauraren eboluzioa konta-
tzen du, zelula izatetik, enbrioi izatera le-
henengo eta fetura ondoren nola pasa-
tzen den. Besoak, eskuak, hatzak, azkaza-
lak garatzen nola doazen. Honez gain, ga-
raian garaiko amaren sintoma fisiko eta
emozionalak zeintzuk izan ohi diren es-
plikatu du. Honen ondoren eta atal la-
burren bidez, haurdunaldiarekin lotuta-
ko gauza txiki eta ez hain txiki horiek be-
rak nola bizi izan zituen azaltzen digu.
Hasieran inori esan behar ez baina guz-
tietan esan nahi den albistea, geroagoko
amniozentesia eta O'Sullivan testa, bu-
kaera aldeko hanka astunak edo haurra-
ren kokapena. Eta une oroko zalantza,



beldur, errezero eta antzekoak.

Liburuan zehar aita eta bikotekideari
buruz ere mintzatzen da idazlea, baina
gibel solasean, Lander Garrok aitaren
ikuspegitik bere kasuaren berri ematen
du. Gizonaren paperaren parekoa da pa-
sarte hau luzerari dagokionez. Haurra
eta amaren atzetik, beti beste maila bate-
an egotea tokatuko zaio prozesu osoan,
baina interesgarria da horri ere errepara-
tzea.

Oro har, oso modu arinean kontatzen
du guztia Osorok, gertutasuna antzema-
teko moduan, konplizitatea sortu nahi-
rik. Izan ere, berak pasatutakoaren mo-
duko zerbait bizi baitu eguneroko hainbat

emakumezko. Dena den, ez du gida bat
izan nahi, zer egin edo egin behar ez den
dioena. Bere kasua azaldu nahi du baina
hartu beharreko erabakietan alde batera
edo bestera lerratu gabe. Horregatik ez
da gomendio kontuetan erortzen, berari
esan zioten bat emanez bakarrik, «eraba-
kiak hartzeko garaian, gehien lasaitzen
zaituena har ezazu».

Informazioz gainezka bizi den gaurko
gizartean, etorkizuneko gurasoek hain-
bat eta hainbat iturri dituzte haurdun-
aldiari buruz gehiago jakiteko, hala nola
paperezko aldizkariak, liburuak, webgu-
ne espezializatuak, Interneteko foroak,
eta abar. Gainera, senide eta lagunak
kontakizun nahiz aholkuak ere hortxe
daude. Eta unea iristean, baita mediku
eta emaginen eskarmentua ere, noski.
Hala ere, euskal literaturan ez dago ho-
rrelako kroniken alerik, Arantxa Iturbe-
ren "Ai ama" salbu, eta hutsune hau bete-
tzen laguntzera omen dator Osororena.

Izan ere, euskaraz gehienbat nobela,
ipuin eta poesiak jasotzen dituzte euskal
editoreek, baina horiek duten merkatua
mugatua da. Aldiz, inguruko hizkun-
tzei erreparatu gero, hankamotz gabil-
tzala diote beste era bateko liburuetan.
Eta hala izango da ziurrenik. Beraz, ongi
etorriak izan daitezela, bai liburu be-
rriak, bai irakurle berriak, eta hurrengo-
rako, agian, haurra jaio osteko garaia-
ren gorabeherak kontatu daitezke edota proze-
su osoa aita baten ahotik agertu. Ea nor
ausartzen den, ez baita errazena norbera-
ren intimitateak ere agertzen diren kro-
nikak argitaratzea.



Mikel IBARGUREN

Kulturaz

O raindik orain
egungo Jaurlari-
tzak kultura opa-
ritzeko, erosteko
deia egin zigan
publizitate kanpaina baten
bitartez. C-rekin nahiz K-rekin
kultura kontsumitzera bul-
tzatu nahi gintuen oso modu
paulovtarrean, dena esan be-
har bada. Eta nik ez dakit, bai-
na urtarreko beharapen
edota txertatzeko kanpaina
masiboan antz gero eta han-
diagoa hartzen diet horrelako
mezu telegidatuei. Merkatu
global honen mende dagoen
salgaia baino ez da kultura.
Eta merkatuentzat –egungo
jainkoentzat– on dena, nor-
banakoentzat ere ona behar
du izan. Horra, etengabe ja-
san behar izan dugun mezu
subliminala. Saldu nahi izan
diguten leloa. «Betiko leloa-
ren betiko leloa» (Berri Txar-
rrak). Horregatik igotzen du-
gu bolumena iragarkietan.


Tim Robinson aktore eta
zuzendariak zioen formatu
berriekin dena –filmak, abes-
tiak...– konprimatzeko joera
dagoela. Eta kulturarekin, oro
har, gauza bera gertatzen ari
dela esango nuke. Erosi behar-
reko txartel batean konpri-
miturik saldu nahi izan digu-
te oraingoan. Eta bihar
auskalo. Prêt-à-porter mo-
duan agian.

Nik, neure apalean, uste
nuen kultura beste zerbait
zela. Funtzio soziala betetzen
zuen heinean nortasun pro-
pio bat ematen ziola norba-
nakoari, herriari. (Noski, cul-
tura (edo culture) eta kultura
ez dira gauza bera gurea be-
zalako egoera diglosiko bate-
an. (Uler bedi). Uste nuen
geure burua begiratzearaz
gain, mundua begiratzeko
modu bat zela kultura. (kul-
turartekotasuna lantzeko la-
nabes gisa). Ez hobea edo
txarragoa, baina ezberdina.
Uste nuen kulturak aske egi-
ten gintuela, duela gutxi Ma-
nex Pagolak zioen bezala;
etengabeko eraikuntza men-
tala zela eta ez zerbait estati-
koa, kosifikatua.

Blanca Urgell sailburuak
dio euskal kultura bere zilbo-
rrari so egon dela denbora
askoan eta orain (hots) kultu-
ra demokratikoagoa egingo
dutela. *Evidentemente*.

Horregatik jarraitzen dugu
bolumena igotzen.

KALERATU BERRIAK

VIAJE A TRAVÉS DE LA
REVOLUCIÓN ISLÁMICAENTRE LOS CREYENTES
V.S. Naipaul
Debate, 2010
528 páginas. 22,90 euros

Crónica del viaje que el au-
tor de origen indio empre-
ndió en 1979, tras el éxito de
la revolución islámica en
Irán, por este país, Pakistán,
Malasia e Indonesia. Los
«creyentes» del título son
los musulmanes que cono-
ció en esos viajes, hombres
y mujeres jóvenes que lu-
chaban por recuperar la pu-
reza original de su fe.

CHECHENIA DESPUÉS
DE LA GUERRACHECHENIA, AÑO III
Jonathan Littell
RBA, 2010
128 páginas. 16 euros

Durante las guerras de
1996 y 1999 Jonathan Li-
ttell trabajó en Chechenia
como miembro de una
ONG. Años después regresó
al país para entrevistar al
nuevo presidente y para
comprobar si de las cenizas
había empezado a brotar la
esperanza. Pero lo que se
encontró no respondía a
sus expectativas.

LA BALADA
DE BONNIE Y CLYDEWANTED LOVERS. LAS CARTAS DE
AMOR DE BONNIE & CLYDE
Alpha Decay, 2010
96 páginas. 14 euros

Cartas cargadas de emoción,
romanticismo y mucha so-
carronería y humor que la
pareja de bandidos más le-
gendaria de la historia in-
tercambió durante algunas
estancias de Clyde en la cár-
cel. El volumen se completa
con dos poemas de Bonnie,
mucho material gráfico des-
conocido y un prólogo a
cargo de Ana S. Pareja.

¿QUIÉN ES CLARA,
A DÓNDE VA?ELECTRÓNICA PARA CLARA
Guillermo Aguirre
Lengua de Trapo, 2010
208 páginas. 18,50 euros

En un Madrid que es un ar-
chipiélago de barrios, un ca-
so de locales, de fiestas y de
vorágine, un grupo de jóve-
nes intenta sobrevivir a la
propia fábula de su caótica
existencia. En ese contexto,
aparece Clara, esa mujer
enigmática que todos pare-
cen desear. Premio Lengua
de Trapo 2009, ésta es la pri-
mera novela de Aguirre.